



Arartekoaren 2020R-2413-19 Ebazpena, 2020ko urriaren 29koa. Horren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari gomendatzen zaio behar diren neurriak har ditzala 2011ko ekitaldiko deialdian aurkeztutako garapen profesionala aitortzeko eskaera izapidetzeko eta haren emaitzari deialdi horretan aldeko ebazpena eman zitzaizen gainerakoei emandako eragin-data bera esleitzeko.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoarengana jo zuen, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak 2011ko ekitaldian garapen profesionalaren maila aitortzeko egindako ohiko deialdiarekin lotuta egindako jarduketa batekin ados ez zegoela adierazteko. Deialdi hori Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 1930/2011 Ebazpenaren bidez argitaratu zen.

Pertsona horrek Osakidetzako langile ez-finko gisa parte hartu zuen deialdi horretan, eta I. maila aitortzeko eskatu zuen. Hark zioenez, eskatutako baldintza guztiak betetzen zituen.

2013ko maiatzaren 9an, plaza bat lortu zuen Kantabriako Osasun Zerbitzuan, baina handik gutxira Osakidetzara itzuli zen, urte bereko ekainaren 10ean zerbitzu-eginkizun bat eman baitzioten. Harrezkero, erakunde horretan lanean aritu da etengabe, zerbitzu-eginkizunean nahiz langile finko gisa, 2019ko otsailaren 8an lanpostu bat lortu baitzuen lekualdatzeen lehiaketa baten parte hartu ostean.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 8ko 558/2014 Ebazpenaren bidez, deialdia etetea erabaki zen, nahiz eta ezarri zuen orain arte egindako jardun guztiak baliozkoak izaten jarraitzen dutela, eta haiek etendako administrazio-espeditentean jasoko zirela, egoera ekonomikoak hori egiten uzten duen arte eta etenaldia bertan behera uzteko erabakia hartu arte.

Etenaldia indarrean zegoen bitartean, kexagileak Kantabriako Osasun Zerbitzuak egindako garapen profesionalerako deialdian parte hartu zuen, eta I. maila aitortu zioten. Aitorpen hori Osakidetzak homologatu zuen ondorioak 2017ko otsailaren 24tik aurrera izanik eta, beraz, harrezkero, dagokion ordainsari-osagarria jaso du.

Etenaldia luzatu egin zen, harik eta Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 1eko 36/2018 Ebazpenak prozesuari jarraipena ematea xedatu zuen arte, irailaren 28ko 246/2017 Epaia behin-behinean betez; epai hori Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak eman zuen.

Epai horrek deialdian parte hartutako langileen eskubidea aitortu zuen, hau da, hura legeak ezarritako bideen arabera ebatz zedila egokiak diren mailak





esleitzen diren arte; hala ere, adierazi zuen aitorten horrek ez zuela ondorio ekonomikorik izango.

Hala ere, aurrerago, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren maiatzaren 9ko 225/2018 Epaia epai hori partzialki baliogabetu zuen, ondorio ekonomikoei dagokienez; horrenbestez, berretsi zuen deialdian parte hartu zutenek eskubidea mailak esleituta dagozkien ordainsariak jasotzeko, atzerapenak ordainduta.

Jarraian, deialdian eskuraturiko mailen esleipena behin behinean argitaratu ziren Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 21eko 483/2018 Ebazpenaren bidez eta, behin betiko, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 30eko 1252/2018 Ebazpenaren bidez.

Kexa jarri zuen pertsonak bere garaian aurkeztutako eskaera ez zen agertzen argitaratutako zerrendetan, eta osasun-administrazioak deialdia kudeatzeko implementatutako aplikazio korporatiboak, berriz, honako hau adierazi zuen kexa horren inguruan: *"sido excluida por no reunir los requisitos establecidos en la Resolución de Convocatoria."*

Hori dela eta, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen, eta, ebazpena emateko legez aurreikusitako epea igaro eta erantzunik jakinarazi ez zitzaionez, beste idatzi bat erregistratu zuen, ebazpena emateko eskatzeko. Azkenik, osasun-administrazioak ezetsi egin zuen errekurtoa, eta argudiatu zuen baztertzearren arrazoa zela eskatutako maila 2017ko otsailaren 24tik zegoela onartuta homologazio bidez, eta, beraz, ezin zela beste bat egin.

Deialdian parte hartutako gainerako pertsonen dagokienez, 2019ko karrera profesionalaren zenbatekoak modu erregularrean ordaindu dira, eta 2019ko urrian, 2012ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitarteko epealdiari dagozkion atzerakinak ordaindu ziren.

Nolanahi ere, kexagileak, bere eskaera prozeduratik kanpo utzi den neurrian, ez zituen jaso 2012ko urtarrilaren 1etik 2017ko otsailaren 23ra bitartean legozkiokeen zenbateko atzeratuak, eskatu bezala I. maila esleitu bazitzaion.

2. Arartekoa Osakidetzari zuzendu zitzaion idatzi baten bidez. Idatzi horretan, kexan kontatutako aurrekariak deskribatzeaz gain, zenbait gogoeta jasotzen ziren, eta horiek geroago aztertuko dira ebazpen honetan bertan. Halaber, azaldutako egoeraren inguruko informazioa eskatzen zuen, bai eta kexagilearen eskaeratik baztertu izana berrikusteko eta deialdiko baldintzen arabera izapidetzen jarraitzeko aukeraren ingurukoa eta, hala egin ezean, jarduera hori eragotziko luketen arrazoi juridikoen ingurukoa ere.
3. Administrazioaren erantzun-txostena aurrekari horietatik bertatik abiatzen zen, eta, kexagilearen uzia ezesteko justifikazio juridikoari dagokionez, bere garaian





aurkeztutako gora jotzeko errekurtoa ezetsi zuen ebazpenera igortzen zen. Ebazpen horretatik honako paragrafo hau transkribatzen zen:

"Errerurtsogileak berariaz aitortuta daukanez lanbide-garapenaren I. maila 2016/03/14an Kantabriako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Kantabriako Osasun. Zerbitzuaren Ebazpenaren bidez, eta Osakidetzak I.maila hori homologatu dionez errekurto honen xede den behin-behineko ebazpena argitaratu baino lehen, ezin zaio berriz aitortu maila; hortaz, 1930/2011 Deialdian egindako eskaera baztertu egin da, eta, horregatik, bere izena ez da agertzen Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 21eko 483/2018 Ebazpenaren eranskinetan."

4. Azaldutakoa ikusita, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen Osakidetzari beste idatzi bat bidaltzea, beste behin ere lehen aipatutako hausnarketetan eragiteko eta xehetasun handiagoz azaltzeko.

Era berean, argudio horien balorazio arrazoitua helarazteko eskatu zen, eta osasun-administrazioak kexa jarri zuen pertsonaren eskaera 2011ko deialdiaren arabera bideratzeko aukerari buruz duen jarrera adierazteko.

Azkenik, dokumentuak azpimarratzen zuen, Arartekoaren iritziz, azaldutako azterketari kontra egiteko behar besteko justifikazio juridikorik ez balego, kexan jasotako uziaren aldeko erabaki bat oinarritzera irits zitekeela.

5. Osakidetzaren azken erantzunak egoeraren aurrekariak deskribatzen ditu berriro, eta zenbait zehaztapen egiten ditu. Horietako batzuk ebazpen honen aurrekarietan sartu dira.
 - Alde batetik, gaineratzen du Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren otsailaren 1eko 36/2018 Ebazpenak irailaren 28ko 246/2017 epaia betearazi zuela, behin-behinean eta bere terminoetan. Epaia horrek onartzen zuen deialdian parte hartzen zutenek hura ebazteko eskubidea zutela, baina ondorio ekonomikorik gabe. Era horretan, osasun-administrazioak uste du orduan kexagileari garapen profesionaleko I. maila esleitzeak kalte ekonomikoa ekar diezaikeela; izan ere, ebazpenak ez zuen ondorio ekonomikorik, eta berak maila horretako ordainsari-osagarria jasotzen zuen 2017ko otsailaren 24tik.
 - Bestalde, adierazi du ez dakiela zein tresnaren bidez jakinarazi zitzaion pertsona horri bere eskaera baztertua izan zela deialdian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik. Hain zuzen ere, Arartekoaren idatziak zioen erantzun hori jaso zuela, baina ez zuen zehaztu aplikazio informatiko korporatiboaren bidez izan zela. Nolanahi ere, osasun-administrazioak adierazi du baieztapen horrek honako hau izan behar duela kontuan: *"Ez ditu betetzen 2017ko otsailaren 24tik aurrera Osakidetzak dagoeneko aitortu dion mailaz (I. maila) goragoko maila lortzeko baldintzak"*.





- Azkenik, azpimarratu du behin administrazio-prozedura amaituta, kexagileak ez zuela administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo horretarako emandako epeetan.

Baztertzearen arrazoi juridiko gisa, gora jotzeko errekurtoa ezesten duen ebazpenaren lerrokada errepikatzen du berriro dokumentuak, zeina gorago kopiatu baita.

Gogoetak

1. Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 1930/2011 Ebazpenaren bidez (2012ko apirilaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua), Osakidetzaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalak 2011ko ekitaldian garapen profesionaleko maila aitortzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskaerak, ebaluazio-prozedura eta maila esleitzeko prozedura arautu ziren.

Testu horretako 3. artikuluan deialdian parte hartzeko baldintzak ezartzen ziren. Kexagileari dagokionez, baldintzak honako hauek ziren:

- Osakidetzan aktibo edo pareko egoeran egotea, aintzatespena lortu nahi den kategorian, eskaerak aurkezteko epearen hasieran edo uneraren batean.
- Egiaztatzea kategorian Osakidetzan hiru urtez lan egin izana, eskaera egiteko epea hasi aurreko bost urteetan.
- Egiaztatzea kategoria deitu zen LEParan azken prozesuan parte hartu izana eta azterketa benetan egin izana, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta betiere dagokion eskaera egin bada.
- Kategorian 5 urtez zerbitzua eskaini izana.
- Eskatutako mailara iristeko behar diren zerbitzu-urteak betetzea.

Deialdiaren baldintzak aztertuta, eta kexagilearen lekukotasuna kontuan hartuta, zure eskaerak kontuan hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela dirudi.

Horrela, pertsona horrek deialdian parte hartu zuen aurreikusitako izapideen arabera eta horretarako ezarritako baldintza guztiak betetz. Agian, gerora gertatutakoak gertatu ezean, eskaera gainerakoekin batera izapidetuko litzateke, eta garapen profesionaleko I. maila aitortzearen aldeko ondorioak izango litzuzke 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Osasun-administrazioak ez ditu ondorio horiek uxatu.





2. Deitutako prozedura 2014ko maiatzean eten zen, pertsona kexagilearen borondate edo jokabideaz kanpoko egoera bat tarteko. Etena adierazi zuen administrazio egintzak adostu zuen ordura arteko jarduketa guztiek balio zutela, eta administrazio espedientearen parte izango zirela etena bertan behera uztea erabaki arte.

Etena indarrean zegoenean, pertsona horrek I. mailako aitorpena lortu zuen, garai hartan Kantabriako Osasun Zerbitzuaren parte zelako. Hori guztia osasun zerbitzu horrek argitaratutako deialdian eskaturiko baldintzak betez. Erakunde honen iritziz, gorabehera hori merezimendu gisa soilik ikus daiteke, eta zaila izango litzateke garapen profesionaleko aukerak kaltetuko dituen erabaki baten funts bilakatzea.

Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epai banak aitortu zuten garapen profesionalerako deialdian parte hartu zuten langileek eskubidea zutela deialdi hori legez ezarritako bideetatik ebatz zedin, dagozkion mailak esleitu arte, eta eskubidea zutela dagozkien ordainsariak eta atzerapen egokiak jasotzeko.

Ondorio horietarako, esan behar da epai horietako lehenengoaren epaitzan Administrazioa kondenatzen zela prozesuekin jarraitzera, erabat amaitu arte, parte-hartzaile bakoitzari dagokion maila esleitzuz, eta biak etendako deialdian parte hartu zutenen eskubideari buruzkoak zirela.

Beraz, ez dago zalantzarik erabaki judizialaren eremuak prozeduraren barruan eskaera egin zuten pertsona guztiak hartzen dituela, eta, besteak beste, erakunde honen ustez, bai eta kexagilea ere.

Lehen erabaki judizial hori betez, Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren otsailaren 1eko 36/2018 Ebazpenak aurrez etenda zegoen prozesuarekin jarraitzea xedatu zuen.

Prozesuaren deialdiaren ebazpenak ez du inolako aipamenik egiten kexagilearen egoerari buruz, eta ulergarria da hori; izan ere, gaur egun gauden egoeran, prozedura horren izapidetze-atzerapenak, diseinatu eta hasi zenean nekez aurreikus zitezkeen kasuak eragin ditu.

Hala ere, prozesua berriz hasteko ebazpena egin zen unea egokia zen etete-urteak igarotzearen ondorioz sortutako berezitasunak aztertzeko eta haiekin nola jokatu zehazteko. Izan ere, kexagilearen kasuan bezala, bere garaian aurkeztutako eskaera izapidetzeko eskubidea orduko egoeraren arabera aztertu beharko litzateke, eta ez litzateke prozeduratik baztertuz erabat ukatu behar.

Osakidetzaren azken txostenaren arabera, kexagileari I. maila esleitu izan balitzaio, kalte ekonomikoa eragingo litzaioke; izan ere, une horretan maila





horri dagokion ordainsari-osagarria kobratzen ari zen beste osasun-zerbitzu batean lortutako aitortenaren homologazioaren ondorioz; aitzitik, ebazpen horren ondoriozkoak, ez zuen eduki ekonomikorik izango.

Argudio horrek, antza, ahaztu egiten du prozedura abiarazi eta hiru hilabetera, gai honen harira emandako bigarren epaiak dekretatu zuela mailaren aitortza ondorio ekonomikoetara ere hedatzen zela. Hori horrela, prozesuaren behin betiko emaitzaz gain, mailak esleitzeko behin-behineko zerrendak ere bigarren epai hau eman zen eguna baino beranduago argitaratu ziren; hortaz, ezinezkoa litzateke aipaturiko kaltea eragin izana.

3. Kexa honen jatorrizko deialdiaren ondorioek 2012ko urtarrilaren 1era egiten dute atzera.

Ebazpen honen aurrekarietan adierazi bezala, 2019. urteari dagozkion ordainsari osagarriak beren sortzapen-unean ordaindu ziren; 2012ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagozkion zenbatekoak arautzeko, berriz, Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 24ko 9/2019 Instrukzioa onartu zen eta egin zen publiko, 2011ko deialdietako karrera profesionaleko atzerapenak ordaintzeari buruzkoa.

Deialdiaren ondorioetarako data horretan, kexagileak ez zuen aitortuta garapen profesionaleko maila, izan ere, hain zuzen, ez zuen berau lortu 2017ko otsailaren 24ra arte.

Bada, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, prozedura eten ez bada edo gerora Osasun Zerbitzu kantauriarra onartu ez bada, ondorioztatu behar da kexaren sustatzailearen eskaera egun hori baino lehen ebatziko zela, eta, beraz, I. maila ere lortuko zuela 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Erakunde horrek iritzi hori helarazi zion osasun-administrazioari, eta ohartarazi zion ekar zitezkeen datu edo lekukotasunen eraginpean geratzen zela, ondorioaren aurkakoak izan zitezkeenak; hala ere, azkenean ez ditu eman.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak uste du kexagilea deialditik kanpo uzteko erabakiak ukatu egin ziola bere parte-hartzea aipatutako epaietan adierazitakoaren arabera egiteko eskubidea, eta data horretatik 2017ko otsailaren 24ra arteko epea inolako estaldurarik eta ondoriorik gabe utzi zuela.

4. Egia da jadanik I. maila formalki aitortuta egonda, ez dela beharrezkoa irudituko eskaera bat ebaztea, eta horren ondorioa, aldekoa izanez gero, I. maila hori bera esleitzea izango da.

Hala ere, espediente honen berezitasunak, normalean administrazio-prozeduren ohiko izapidetzean agertzen ez direnak, deialdi honekin gertatutakoaren argitan aztertu behar dira, zeinaren ebazpena 6 urte baino gehiago luzatu baita ondorio





ekonomiko eta profesionalen datatik, kexagilearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Illo horretan, kontuan hartu behar da Osakidetzako deialdian parte hartzeko eskaerak ez duela Kantabriako Osasun Zerbitzuak egindako aitortenaren eta gero hark homologatutakoaren eduki bera; izan ere: ala biek garapen profesionalaren I. mailaz ari badira ere, beren ondorioen datak desberdinak dira. Hala, bata 2017ko otsailaren 24tik abiatzen bada ere, besteak 5 urte baino gehiagoko epealdia hartuko luke ere, hau da, 2012ko urtarrilaren 1etik orain artekoa.

Ondorioz, erakunde honen arabera, beharrezkoa da aitorten horren ondorioak luzatzea deialdia hasieran aurreikusitako termino eta epean ebaztekotan egokituko litzaiokeen datara. Hori guztia bat etorritik adierazitako adierazpen judizialekin.

5. Bestalde, Osakidetzak hartutako erabakiaren arabera, kexagileak baldintza okerragoak ditu deialdian parte hartu zutenen baldintza berberetan parte hartu zutenen aldean; orain, ordea, askoz lehenagokoa den ondorioetarako data bat duen maila bat dute, hark aitorten hori lortu zuelako prozedurak etenda jarraitzen zuenean, eta merezimendua adierazten zuen gertaera baten ondorioz, beste osasun-zerbitzu batean hautapen-prozesu bat gainditzearen ondorioz, hain zuzen.

Gogoratu behar da erabaki horrek ondorio zehatzak izateaz gain, kexagilearen karrera profesionalari ere eragiten diola, bere ondorioak etorkizunera proiektatuz.

Arartekoak osasun-administrazioari zuzendu zion idatziak gogoeta horiek jasotzen zituen, eta, era berean, adierazten zuen ezen, erakunde horren ustez, eskaeraren erabateko baztertua, 2012ko urtarrilaren 1ean I. maila aitortzearen ondorioak hedatu gabe, merezimendu-printzipioa urratzen zuela, eta ondorioztatu zuen, adierazitakoarekin kontraesanegon egongo zen justifikazio juridiko nahikorik egon ezean, erakunde horrek ezin izango zuela jarduketa babestu.

Aurkeztutako dokumentazioaren argitan, ondorio hori errepikatzea besterik ez da falta.

6. Osakidetzak kexagileak aurkeztutako gora jotzeko errekursoaren ebazpenetik gaurdaino mantendu duen argudioa hauxe besterik ez da: pertsona horrek garapen profesionaleko I. maila aitortuta duenez, eta I. maila hori Osakidetzak homologatu dionez prozesuaren behin-behineko ebazpena argitaratu aurretik, ezin da aitorten berririk egin; aitzitik, parte hartzetik kanpo utzi behar da.





Lehen esan bezala, prozesuaren deialdiak ez du jasotzen kexa honetan aztertutako egoera bezalako bat, eta, beraz, ez du jasotzen prozesutik baztertzeko arrazoi gisa.

Espedientean ere ez da aurkeztu bazterketaren oinarri den justifikazio juridikorik, ez eta parte hartu zuen deialdiaren ondorioetarako datan kexagileak duen mailaren ondorioak zabaltzea eragozten duten zuzenbideko argudiorik ere.

Bestalde, osasun-administrazioak bidalitako azken dokumentuak deialdian ezarritako baldintzak ez betetzearen aipamena azaltzen du, honako hau aipa dezaketela argudiatuta: *“no reúne los requisitos para optar a un nivel superior al que ya se tiene reconocido por Osakidetza desde el 24 de febrero de 2017, que es el Nivel I.”*

Erakunde honek ezin du tesi horrekin bat egin, kontuan hartuta eskaera I. mailari zegokiola beti; izan ere, eskaera egin zenean, kexagileak ez zeukan esleituta, eta ez zuen inoiz jakinarazi bere asmoa maila altuagoa lortzea zenik.

7. Azkenik, Osakidetzak aipatzen du kexagileak ez zuela errekurtsu judizialik jarri prozesuaren behin betiko emaitzaren aurka edo gora jotzeko errekurtsuaren ezespen administratiboaren aurka, baina ez du adierazten zer ondorio izango lituzkeen inguruabar horrek.

Nolanahi ere, erakunde honek adierazi nahi du Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak eskumena ematen diola kexan planteatutako kasua aztertzen hasteko, dagozkion balorazioak egiteko, ondorioak oinarritzeko behar den informazioa eskatzeko eta, hala badagokio, dagozkion gomendioak egiteko.

Illo horretan, eta osasun-administrazioak harturiko erabakiaren irmotasunari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.1 artikuluan xedatutakoa gogorarazi behar da; horren arabera, *“Preskripzio-epea bete ez den bitartean, administrazio publikoek edozein unetan erreboka ditzakete beren egintzak, kargak ezartzen dituztenak edo inoren kalterako direnak, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekapen edo salbuespena, eta ez bada berdintasunprintzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa.”*





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Behar diren neurriak har ditzala 2011ko ekitaldiko deialdian aurkeztutako garapen profesionala aitortzeko eskaera izapidetzeko eta haren emaitzari deialdi horretan aldeko ebazpena eman zitzaien gainerakoei emandako eragin-data bera esleitzeko.

